

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Anvil: ingudeak eta mailuak

Ez dakit gauza handirik zineari buruz, horregatik ardoarekin egiten dudan moduan taxutzen ditut nire sailkapenak: barruan zerbait mugitzen badit eta sabelaldea bero sentiarazten, delako pelikula/ardoa ona da niretzat. Kanada aldeko ardoari buruz ere gauza gutxi dakit —ezjakintasuna da gizakiaren egoera naturala—, baina bertatik dator gomendatu nahi dizuedan pelikula: *Anvil, The Story of Anvil. Gran Reserva* bat, inondik ere.

Dokumental moduan aurkeztua, zinta honek Anvil metal taldearen benetako istorioa kontatzen digu: laurogeigarren hamarkada hasieran heavy musikaren talderik handiena izan behar zuena (Metallica edo Slayerren pare), destino petralaren sareetan erori eta ahanzturaren gela ilunera egotzia izan zen. Anvileko taldekideek, baina, dedikazio harrigarriarekin jarraitu dute aurrera, duinetan duin, aretorik ospelentan jotzen. Hori guztia maitasun eta errespetu osoz aurkezten digu Sacha Gervasi, zine-zuzendariaren eserlekutik bainoago, jarraitzailearen ikuspegi humanotik egina dirudien ahaleginean. Hala, hasieratik Anvilen arima izan diren



DANI BLANCO

Lips eta Reinerren gorabeherak ikus daitezke: egungo euren bizimodua (50 urteak ondo beteak), beren esfortzu askotan antzua, hanka-sartzeak, ajeak, inozentzia, umorea, adiskidetasuna eta mundu honetakoak diren beste hamaika sentimendu benetako. Emaizta? Ilusioari aspaldi egin zaion gorazarrerik behinena —“heavyena” esan beharko nuke agian—.

Hedabideetan musikaren alderdi mangelena gurtzen den garaiotan, Anvilen dokumentala antitesi moduko bat dela esatera ausartuko naiz. Rock’n Rollaren gezurra ikonoen bitartez sinetsi dutenek ikusi beharreko pelikula da hau. Ramonesen balizko Rock’n Roll Highschool horretan —non matematikek eta formulek tokirik ez duten—, enborrezko ikasgaia. Egun guztiak Azkena Rock bat izango direlako ustearekin gitarra hartu eta talde batean engaitzen direnentzat abiapuntu gomendagarria.


Anvil hitzak ingudea esan nahi du ingelesez. Paradoxa hori ere alde du dokumentalak: bizitzan bezalaxe, batzuk ingude, bestetzuk mailu.

Gaur AC/DC ikustera noa San Mames zaharrera. ■

« Hedabideetan musikaren alderdi mangelena gurtzen den garaiotan, Anvilen dokumentala antitesi moduko bat dela esatera ausartuko naiz. Rock’n Rollaren gezurra ikonoen bitartez sinetsi dutenek ikusi beharreko pelikula da hau »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aditzen da dagoeneko gure zenbait herriko bazterretan. Sanjoanak. Puntako txirrindularitzaren beroak, arraunen dantza akonpasatuaren azkarra, trenbideetako ortuak, baina eta tomate makilak, bertso plazen libratzea, lapa-biltzaileen ohiko galtzen modaren pirata. Hego Afrika estalpearen negutegiak langile greba bere azpian harrapatu du berriemaileen gezurrak uzta. Begiz ikusia, belarriz sentitutako lantokien isila, parkinetako bakardade behin-behinekoa, ostatuetakoterrazten betea, oro berezia hedabide erraldoiek ohi bilakatua. Internet bilakatua dugu udategi, baratzeeta-

Udaren usaia

ko makila landare koloredunen lurrin, bere garaian uzta jangarria izanaren duguna.

Gasteiz FIFA, hedabide hautatuen epaia grebalariek sartutako golak ezkututzen saiatu da, teknologia azkarrenak lanabes inpunitatea babes. Ustez kapitalaren bakterien aurkako penizilinen jabe hautatuak, sendabelar lasaigarriz hornitu dituzte, izurri honetatik libratuko ez dituzten gaiaz tronparazita darabiltza magnetofoiak bailiran, mezu bakarraren uso hedatzaile gisan. Damutuko zaizkigu, ustez berandu baino lehen beranduegi. Denborak ez du beti justizia ekartzen. Honetaz, dezente dakigu. ■